



# Hondakin arriskutsuen negoziatzaileen betekizunak eta betebeharrak

Hondakinen kudeatzaile gisa, Ekonomia Zirkular baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23.5 artikuluan, Hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretuan eta Estatuaren lurralde barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuan aurreikusitako betebeharren araubidea bete beharko du, eta bereziki:

- Jardueren jakinarazpenean adierazitakoa eta kontratuan onartutako klausulak eta baldintzak bete
- Eskuratzen dituzten hondakinak tratatzeko eragiketa osoa eta egokia egiten dela ziurtatu, eta hasierako ekoizleari edo hondakin horien beste edukitzaile bati agiri bidez egiaztatu, lekualdaketaaren identifikazio-agiriaren bidez.
- Balio positiboa duten hondakin arriskutsuekin lan egitea eta izaera hori agiri bidez egiaztatzea.
- Artxibo elektronikoko bat eduki, ordena kronologikoaren arabera hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga, tratatzeko metodoa, garraiobidea eta biltzeko maiztasuna jasoko dituen. Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinekin negoziatuz gero, 110/2015 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Artxiboan, aurreko paragrafoan aipatutako egiaztagiri dokumentaletan jasotako informazioa sartuko da. Artxibatutako informazioa gutxienez 5 urtez gordeko da
- Urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen, aurreko urteko artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bidali.
- Agintaritza eskudunei lankidetzara osoa eman, artxibo kronologikoa eskuragarri jarri.
- Asegurua edo finantza-berme baliokidea eta fidantza edukitzea.
- Hondakin-negoizatzailearen jarduera amaitzen duenean, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu jakinarazpenari baja emateko erregistroan.